

ARBONAKO

Berriak

18
GARREN
NUMEROA

ADINEKOAK

Giro goxoa eta umorea zahar
elbarrituen harrera etxean

ESKOLA BIZITZA

Ikasturte berezia

ANTOLAMENDUA

Oinezkoak eta mugikortasun
goxoak



2021eko urtarrila



Arbonako Andere Auzapezak eta kontseilariek agiantza oberenak

Herriko Etxea
10 route du Bourg
64210 Arbonne
Tél. 05 59 41 94 66
www.arbonne.fr
mairiearbonne
arbonne64

idekitzeko orenak
Lundi 9h - 12h
Mardi 9h - 12h / 14h30 - 18h
Mercredi 9h - 16h
Jeudi 9h - 12h / 14h30 - 18h
Vendredi 9h - 12h

Hirigintza zerbitzua
hitzorduz
Mardi 9h-12h
Mercredi 9h-12h
Jeudi 14h30-18h

Argitaratzearen nagusia
Marie-José Mialocq
erredakzio batzordea
komunikazio batzordea
Argazki kreditua
Mairie - vteldrone.fr - Pixabay
Itzulpenak
Euskal Hirigune Elkargoa
Christiane Urkia-Martin
Inprimagailua
Antza Komunikazio Grafikoa
harremanetan
communication@arbonne.fr

AURKIBIDEA

ESKOLA BIZITZA p. 4 - 5

Ikasturte berezia

ADINEKOAK p. 6 - 7

Bazkari banaketak gizarte
lotura elikatzen du

Giro goxoa eta umorea zahar
elbarrituen harrera etxean

ANTOLAMENDUA p. 8 - 10

Herria antolatzen segitzen
dugu

Oinezkoak eta mugikortasun
goxoak

Aparkatzea

HERRI BIZITA p. 11 - 14

Janari saltegiak urtea bete du

Zuntz optika ozertan da ?

Arbonar berriei ongi etorria

Igandeko azoka berria laster

KOMUNIKAZIOA p. 14

Herriaren webgune berria

ÉTAT CIVIL p. 14

2021-ean gure egunean eguneko engaiamendua segituko dugu



Arbonar maiteak,

Iragan urtea zaila izan da maila anitzetan. Herriko hautetsiak eta langileak, irakasleak, saltzaileak, boluntarioak eta artatzaileak hor izan ditugu ahal bezain ongi laguntzeko. Egoera berezi horretan, hain beharrezkoak zaizkigun elkarte eta partaideekin harremanak azkartu ditugu.

Iragan urteaz gogoan atxikiko nituzke, lehen konfinamenduko elkartasun oldar zoragarriak, bereziki gure arteko trukaketak eta harremanak biziki mugatu behar baikenituen. Giza harreman mota berriak, elkarrekin egoteko eta partekatzeke modu berriak lagungarri izan dira egoera horretan, baina espero dugu lehenbailehen herria normal bizitzera itzuliko dela, merkatu berriarekin, eta festa eta kultur animazioekin.

2020ean ere obra ugari izan dugu eta erakutsi duzuen pazientzia eta suhartasuna eskertu nahi dizkizuet. Izan ere, zuetako anitzek hartzen dute departamendu errepublikazko bazterreko oinezkoen bidea, oinez edo bizikletaz joaten dira herri erdira erosketak egitera, zerbitzuetara edo sinpleki itzuli baten egitera. Finkatu genuen urte anitzeko lan programa betetzen ari gara: herrigunean aparkatzeko lekuen kopurua emendatu dugu, segurtasuna ere bermatu dugu mugitzeko modu berriak lehenetsiz, ingurumena begiratzen baitute.

Urte hastapen honetan, gutariko zaharrenak ditut gogoan: kuraia handia erakusten ari dira, baita haiekin egoten diren artatzaile eta laguntzaileak ere. Haurrek ere, eskoletan ezarri diren protokoloek egokitzeko gaitasun eredugarria erakutsi dute. Alabaina, honako aldizkarian irakurriko duzuen bezala, eskola sartzeari zuzentzea handiz egin dugu, Frantziako Hezkuntza Ministerioak hilabetero ematen zituen osasun neurriak segituz. Gu, beti izan gara herriko haurren loratzeari alde, eta beren harrera baldintza onak lehentasun izanen ditugu beti. 2021ean haien zuzentzeko proiektu nagusi bat abiatuko dugu: herri sartzeari zuzentzeko eskola berria.

Arbonako herri aldiakari honek herriko berriak ematen dizkizue. Sare sozialetan eta herriaren webgunean ere segi ditzakezue berri ofizial horiek erregularki.

Urtarril honetan, ezingo dugu elkar ikusi urte berriko agiantza ekitaldiaren kari. Herriko talde guziarekin hor gaituzue zuen entzuteko, aipatu nahi dituzuen gaiez mintzatzeko. Herriko hautetsiekin batera, zuetariko bakoitzari 2021 urte ona izatea opa dizuet.

Zaindu zuen buruak eta ingurukoak.

Zuen auzapeza
Marie José Mialocq

Bihotzez



Arbonako eskola publikoko

Ikasturte berezia

Aurtengo ikasturte hasiera nahasia izan da osasun protokoloen betetzearekin. Hurrek, gurasoek, irakasleek eta herriko langileek tarrapataka egokitu behar izan dute.

3 galdera Sophie Macazaca-rentzat, Arbonako eskola publikoko zuzendaria

Eskola sartzetik ezarri diren osasun protokoloek zer diozu?

Nahiz eta epe biziki laburrak izan protokolo horien ezartzeko, aginduak bete ditugu. Neurri horietako asko jadanik indarrean ziren eskolan, aitzineko protokolo zorrotzagoa atxiki baikenuen. Bestalde, eraikinen egiturak aukera eman digu ikasleak hiru mailatan banatzeko.

Nola egokitu dira haurrak?

Maskararen erabiltzeari eta guri pizuak iruditzen zaizkigun beste osasun neurriei erraztasun handiz egokitu zaizkie. Haurrak zinez harrigarriak dira!

Gure eskolaren indarra beti izan da mailen arteko nahasketak egitea eta elkarrekin ongi bizitzea.

Orduan, ikusmolde hori arrunt berrikusi behar izan dugu eta ikasleak banatu. Hori zen, hain zuzen, Frantziako Hezkuntza Ministerioak inposatu zigun osasun neurrietako bat: ikasleen ez nahastea. Ez da erraza izan hori betetzea.

Baina, esperientzia orotik gauza baikorrak jalgitzen dira. Orain irakasle bakoitza bere klasearekin ateratzen da kanpora, eta ikasleek ondorioz leku gehiago dute jolasteko. Ez da gehiago gatazkarik edo talkarik ikasleen artea (edo biziki guti) eta maila bakarreko gelaren onurak dastatzen ditugu: gela barneko harremanak azkartzen dira, ikasleen artean baina ikasle eta irakaslearen artean ere. Gela bakoitza familia bat bilakatzen da. Halere, egoera horrek ez luke gehiegi iraun behar, ezen ikasleen

arteko nahasketa eta trukaketa ezinbestekoak baitira biziaren ikasteko eta nor bere ingurunean loratzeko. Etorkizunean oreka berria atzeman beharko dugu.

Nola egokitu dituzue proiektuak?

Iaz eta ikasturte hasieran, irakasle guziek proiektuak prestatu zituzten, baina denak deuseztatu behar izan genituen, eta batzuetan gastuak aitzinaturik. Garai hauetan ikasgelaren funtsezko gauzetan zentratzen gara konfinamendu denboran galdu denbora berreskuratzeko, eta ikasleak lasaitzeko, zaila egiten baitaie garai hauetan gertatzen dena ulertzea.

Proiektuak ez ditugu faltan, baina oraingoz zuhurtziaz eta pazientziaz jokatu behar dugu.



ARBONAKO ESKOLA PUBLIKOAREN ZENBAKIAK



121 IKASLE

> 42 ama-eskolan
> 79 lehen mailan



6 IKASGELA



7 IRAKASLE

eta hauetako
bat zuzendaria izanik



7 HERRIKO LANGILE ETA HAUEN ARTEAN 3 ABLA

(Ama-eskolako Bereztu
Lurralde Agentea)



HERRIAK DIRUZTATU 5 ARBEL DIGITAL

Maila anitzeko ikasgelak

Maila anitzeko ikasgelak biziki ohikoak dira frantses eskoletan eta Arbonako eskola publikoaren ezaugarria dira. Antolaketa horrek pedagogia abantailak baditu :

- txiki eta handien arteko harreman hobeak, lehenak bultzatzen baititu eta besteak balioesten.
- elkarlaguntza eta autonomia ahalbidetzen ditugu, eta horrela ulermena eta aitzinatzeko gogoia garatzen.
- adinen arteko mugak ez dira hain markatuak
- maila guzietan talde eztabaidak antolatzen dira
- Gauza berrien ezagutzeko denborak parteka ditzakete
- denborak du lana egituratzen, eta horrela lan denbora eta autonomia hobeki kudeatzen ditugu

Eskola berria : arkitekto deialdia plazaratu dugu

Eskola publiko berria Bil Gune aparkalekuaren ondoan izanen da. Arkitekto deialdia plazaratu dugu. « *Eskola publiko berriari esker ikasleak baldintza hobereenetan hartuko ditugu. Proiektu horrek gure herriak gazteria gaietan duen dinamismoa agerian ematen du* » adierazi zuen Guillaume Fourquet, gazteria, eskola eta animaziorako auzapez ordeak. Proiektu handi hau, herriko bertze obra guziak bezala, erremanan dugu, zorrotasunekin, kostuak begiratzuz baita zergak atxikiz orai arteko heinean, zoin baita inguruko herrietako apalenetarik bat.

Eskola oporretan kirolak eta jokoak hautuan

Arbonako herriko etxeak opor txikietako ostiral arratsalde guzietz kirol jarduerak eskaintzen ditu 7 eta 11 urte arteko haurrentzat, kirol irakasle baten eskutik. Animazio horiek Bil Tokinegitendira 13:45 eta 17:45 artean. Arbonako herriko etxean izena eman behar da : mairie@arbonne.fr / Tel. 05 59 41 94 66

San Laurendi eskola pribatuaren berri

Aurten San Laurendi eskolak 73 ikasle ditu. Besteetan bezala eskola honetan osasun neurriek markatu dute urtea eta ondorioz bi urtetik behin egiten diren eskola ateraldien proiektuak bertan behera gelditu dira. Gurasoen elkarteak ere ezin izan ditu ohiko gauzak antolatu: Eguberriko merkatua eta ganer hustea. Halere, hezkuntza taldeari ez zaizkio ideiak falta. Lehentasunetan dute jolas eremuaren zoruaren berri, segurtasun gehiagorentzat. Halaber, eskola sartzeko horman margolan bat

eginen dute. Bistan dena, gauza horiek oro haurrentzat eta eskolarentzat inplikatzaren diren gurasoen parte hartzearekin egiten dira.

Sophie Indart eskolako zuzendariaren hitzetan, « egoera den bezalakoa izanik ere proiektuak egin nahi ditugu, eta aurten ezin bada, heldu den urtean izanen da ».

Apirilaren 10ean, 9:30 eta 12:00 artean ate irekitze bat egingen da, osasun baldintzen arabera.



Irakasle Arbonaren webgunean atzemanen dituzue talde osoaren izen eta funtzioak: www.arbonne.fr/ecole-privee-saint-laurent

Arbonan ongi xahartzea

Bazkari banaketak gizarte lotura elikatzen du

Goizero Claire Suso herrian gaindi ibilki da zaharrei bazkarien eramateko. Covid-arengatiko neurrien ginetik, bazkariak eramatea baino gehiago egiten du.

Arbonako 15 bat biztanleri ematen die bazkari banaketa zerbitzua. « Menua atsegin dut. Zinez zaila da ez maitatzea. Eta gainera goiz eta arrats jiten zaidan erizainaz aparte beste bisita bat badut, eta egunak laburrago dira horrela. Hitz goxo batzuek eta irria batek beti plazer egiten dute. » (Ibarra anderea, zenbait urtez jadanik zerbitzu hori eskuratzeko duena).

Christian Urkia-Martin gizarte ekintzarako auzapez ordearen aburuz, «aurten ohiko animazioak deuseztatu behar izan ditugu osasun egoerarengatik, baina zaharrentzako eta jende zaurgarrientzako gizarte ekintzak atxiki ditugu». « Bazkarien banaketa funtsezko zerbitzua da errezibitzen dutenentzat. Eta hemendik urrun diren senideentzat ere lasaigarria da jakitea egunero norbait joaten zaiela bisitan», gehitu du hautetsiak.

Arbonako GEUZak (Gizarte Ekintzarako Udal Zentroa/CCAS) du bazkari banaketa zerbitzua kudeatzen, zuen biziaren errazteko eta kanpoko harremanen atxikitzeak. Zerbitzua adineko jendeentzako, elbarrituentzako edo eri direnentzako eskaintzen dugu, urte osoan zehar edo beharren arabera (erialdia, mugitzeko ezintasuna...).




Egun oroz, Paulette Ibarra-k, Claire Suso, adinekoen otruntzak partekatzen dituen herriko enpleguaren bisita errezibitzen du.

► Xehetasun gehiago nahi baduzu, dei ezazu Herriko Etxera : 05 59 41 94 66.

Autonomie 64 deitu plataforma ezagutzen duzue ?

Autonomia gehiagoren ukaiteko lineako tresna.



Bere zerbitzuen kalitatearen obetzeko eta bereziki erabiltzaileer hurbilago izaitzeko, Pirinio Atlantiko departamenduak proposatzen du webgune www.autonomie64.fr, autonomia galdua edo ahalmenez gutituak diren jendeentzat, baita heien urbileko laguntzaile eta sektore hortako ofizioentzat. Ukanen ditutue, zuen kasuaren araberrako argitasunak.

Giro goxoa eta umorea zahar elbarrituen harrera etxean

Giovanni jauna elkarte buru duen «APAJH Côte Basque – Sud des Landes» 1965ean sortu zen. Elbarritasun egoeran dauden pertsonen duintasunaren eta herritar izaeraren errespetua zaintzea du xede. Loratze oso eta gizarteratze nola lanbideratze hobe baten alde lan egiten du. Sautreuil jauna zuzendari duen Lan edo Zerbitzuen bidez Laguntzeko Egitura (ESAT) egitura 1970ean sortu zen eta 180 erabiltzaile ditu. Integrazioa lan egokitu eta zuzenduaren bidez egiten dute.

ESATeko langileek erretreta hartzen dutenean MAPHA-ra joan daitezke. Bizigune hori GURE NAHIA ESATaren barnean da.

ESATeko zahar egoitzako bizia

8 egoiliarrei eguneko harrera egiten zaie beren erritmo eta nahien arabera. Sorkuntza eta kirol jarduerak egiten dituzte (Arbonako liburutegian, animalien bitartekaritza, igerilekua, psikomotrizitatea, elkarrizketa taldeak, gimnastika goxoa...).

Ateraldi batzuen bidez beren egunerokoa alaitzen dute eta

jakinmina pizten gizartean ahal bezain ongi integra daitezen (jatetxea, pik-nika, antzerkia, ikuskizunak, zirkoa, erakusketak, kontzertuak, zinema...)

Didier da MAPHAko egoiliarretako bat. Honakoa dio 72 urteko gizonak : « *Aspaldian nago hemen. Lehenik baratze lanetan aritu naiz. Gogorra zen, ez genuen itxurakeria egiten: hostoak biltzen genituen, kamioia betetzen eta husten. Orain erretretan naiz. Egoitza honetan bizi naiz. Batzuetan etxera joaten naiz familiaren ikustera, baina hemengo hau da ene etxea.* »

Pandemia izanik ere, egunero jarduerak proposatzen zaizkie.



Didier-ek sukaldaritza eta eltzegintza ditu bereziki atsegin. Baina gehien maite duena, ibiltzerajoatea eta terrazan baso baten edatea da : « *zikinkeria itsusia da birus hau. Ez gara gehiago lehen bezala bizi; ez ditut gehiago irriak ikusten maskara hauekin. Birusik izanen ez denean igerilekura eta bowling-era joan nahi dut. Eskasten ditut gauza horiek, eta bereziki 100 urte dituen ene ama ikustera joan nahi dut. Anartean, beharrik irri egiten dugula hemen* » dio baikor.

ESAT FOYER Gure Nahia,
Senpereko bidea
64210 ARBONA
Tel. : 05 59 41 94 13



Gimnastika

Herria antolatzen segitzen dugu

Herrigunean hirigintza berrikuntza eta antolamendu berriak egin ditugu. Horiei esker, Arbonak itxura ederragoa eta seguruagoa du.

2020an errepideak izan ditugu kezka nagusi, segurtasuna eta ingurumena zaintzen duten mugitzeko modu goxoak lehenetsiz. Lan gehienak eginak dira, baina oraindik gelditzen dira zenbait leku eta bide berritzeko.



Hautetsien hitza

Dany EUSTACHE,
1. ordea, hirigintza eta obra
karguduna

« Oinezkoen bidearekin, errepide eta bideetan egin diren eta egiteko gelditzen diren obrekin, herriak mugitzeko modu guzientzako segurtasuna zaintzen du, izan oinezko, bizikletari, auto gidari edo hiruak batera ».

Herrigunea itxura berriturik

Herrigune moldatu eta koherenteagoaz jabetu zarete dagoeneko. Herriko Etxeko plaza eta pilota plazaren berritzearen ondotik, Harismendi plazak eremu berritua eskaintzen du. Aparkatzeko lekuen kopurua emendatu dugu saltokietara errazago joan zaitezten. Ezinbestekoa zen herrigune

horren edertzeko lanen egitea. Baina ez soilik erdigunearen batasun irudi baten emateko eta herri abegitsuagoa eskaintzeko. Bilakaera horri esker eraikina ezin hobeki integratua da eta hurbileko zerbitzu gehiago proposatzen ditu: janari denda eta osasun etxea. Eraikin zaharrak ere berritu eta egokituko ditugu.



Osasun
etxea



Janari denda

Oinezkoen errepide

Oinezkoak eta mugikortasun goxoak

Arbonak garapen iraunkorraren, mugikortasun goxoen eta bizi kalitatearen aldeko urraspide orokorra segitzen du. Oinezkoentzako bide berezia egiten ari gara departamendu errepide bazterrean gure herriaren Iparra eta Hegoa lotzeko. Patrick Allegrotti, ingurumen eta mugikortasun gaietarako ordearen aburuz :

« *Helburura da gutariko bakoitza herriko bizigune nagusietara oinez edo bizikletaz joan ahal izatea, segurtasun osoan: saltokiak, eskolak, haurtzaindegia, oinezko ibilbideak eta abar* ». Preseski, landa bideak pixkanaka zaintzen eta irekitzen ditugu oinez ibiltzea maite dutenentzat.



“ Oinezkoentzako egiazko ibilbidea Iparretik Hegora ”



Uhaldeen kontrako segurtasunaren hesiak

Hesi horiek ezarriak dire Burruntzeko, Alhorgako eta Ziburiako bidetan. Hetsiko dituzte bideak, beharrez, ur ateatzearen kasuan. Uholde denboran, zerbitzu teknikoek segurtatzen dituzte bideetako beharrezko obrak, bai eta deipean diren hautetsi izendatuek, arratsetan eta aste bururatzetan.

Aparkatzea

Eremu Urdin baten sortzea

Herri erdiko bizia errazteko, aparkatzeko leku arautuak ezarri ditugu. Denbora mugatukoak dira, baina urrikirak dira. Honela, jende gehienari aparkatzeko eta saltoki nola zerbitzuetara joateko aukera emanen diogu, autoak ez baitira luzaz egonen.

Eremu Urdina soilik bi aparkalekutan izanen da

- > Harismendi aparkalekua (33 leku)
- > Duhartenia aitzineko aparkalekua (3 leku)



Nola erabili?



Aparkatzea urrikirak da, baina ordu eta erdira mugatua. Eremu Urdina panelekin eta lurreko markekin zedarriritua da. Aparkatzeko diskoa nahitaez erabili behar da. Diskorik erabili ezean, frantses legeak 17€ko isuna finkatu du.

Nola erabili aparkatze diskoa?

Diskoa autoko aitzineko berinaren barne aldean ezarri behar da. Diskoan autoa aparkatu duzen tenorea ezarri behar duzue. Gehienez oren bat eta erdiz aparka dezakezue autoa.

Non atzeman aparkatze diskoak?

Herriko Etxean badugu disko kopuru bat urrikir emateko. Agortzen direnean erosi beharko duzue. Diskoak salgai dituzue autoentzako materiala saltzen duten dendetan.

Harismendi aparkalekuaren handitzea

Oroitarazten dizuegu herriko aparkatze lekuen kopurua 95etik 195era emendatu dela. Pilota plazako aparkalekua kenduz eta Harismendi aparkalekua murriztuz galdu diren lekuak aise konpentsatu dira Bilgune aparkalekuan (58 leku), Biltoki parean 255 departamendu errepidean (22 leku), herriko etxe giblean (18 leku) eta Harismendi aparkalekuaren handitzearekin (18 leku) sortu lekuekin.

Espaloien gainean ez aparkatzeko trabak ezarri ditugu. Zuen laguntzarekin kontatzen dugu denen segurtasuna hobetzeko eta egin antolamenduen zaintzeko.



Janari saltegiak urtea bete du



Saltokiko atea pasatzean Anne eta Thomas-ek beti bihotz berotasunez hartzen gaituzte. Bada urte bat jadanik bikoteak bere lekua egin duela gure herritarren plazer handiz. Saltzaileak ere kontent dira, zeren lan anitz izanagatik ere, abentura berriarekin biziki loratzen baitira: **« biziki kontent gaude, ikuspegi profesional eta pertsonal batetik ».**

Iragan urtarrilean ireki zenean, jendea kuriostasunez

hurbildu zen. Eta aski laster batzuek hor finkatu dituzte beren erosketa ohiturak. Egunerokoan, noizbehinka, nork berea atzematen du : **« gustu guzientzako dugu, azken momentuko gauzatxoak, baina bertako kalitatezko mozkinak ere »** dio Marie ohiko bezeroak.

Iragan martxoko konfinamenduak lan anitz eman zien bi saltzaileei, eta bide batez saltokiak janariaz

aparte eskaintzen dituen beste zerbitzuak ezagutarazi zituen: Postaren ordezkariak, egunkariak, kafea hartzeko terraza, ogia asteazkenetan...

Udan ere ongi lan egin dute, eta udatiarrak harrituak ziren zenbat gauza atzeman zitekeen denda horretan. Izan ere, 2000 erreferentzia baino gehiago dituzte : banatzailearen markako produktuak, gama gorenekoak, bio produktuak, solteko salmenta, bertakoak eta gama horiek oraindik gehiago aberastuko dituzte bezeroen iradokizunen arabera.

« Garrantzitsua da guretzat eskaera guzietan erantzun ahal izatea. Lehenetsuna ematen diegu kalitatezko produktuei eta bertakoei. Batzuetan erosgaiak hipermerkatuetan baino garestiagoak dira, baina ez ditugu prezioak guk finkatzen; erosketa-zentralak ditu finkatzen gure biltegi gaitasunaren arabera » azpimarratu du Thomas-k.

Espero dezagun saltzaile bikoteak bigarren urte hain ona izanen duela!

Herri barnean seinaleetika berri bat



Seinaletika berriak gidamarkak ezarri ditu herri barne, aparkaleku, ondare, saltegi eta zerbitzuentzat, horiek ez baitzuten orai artio ikuspenik aski. Toki horiek deneri agertzea da seinaleetika berri horen helburua. Bertzalde, informazio eta komunikazio euskarri desberdin horiek dira irakurgarritasun eta ingurumenean integratzearen frogak.

Herriko abantailen balio handitzearen borondatea

Seinaletika berri hori da ondoriotsu eta koherenta, ibiltzaileen gidatzeko eta herriaren baliatzeko.

ZUNTZ OPTIKOA : ozertan da ?

Gure herrian laster egingen dira zuntz optikoaren lehen salmentak

Pirinio Atlantikoetako Departamendu kontseiluak THD64 enpresari eman dio zuntz optikoaren ezartzeko ardura.

Baina zuntza etxebizitzetara eramateko hainbat urrats egin behar dira. THD64ren ustez, Arbonako 500 etxebizitzetan zuntza izanen da 2021eko udaberrian.

> Zuntza eskura dezakezun ala ez jakiteko, thd64 webgunera edo zure Internet hornitzailearenera (apiriletik goiti) joan zaitezke.

Beste etxebizitzaren kasuan, aurreikusi ez genituen lan handiak egin beharko dira sareak kilometro anitzetan andeatuak baitira. Etxebizitza horiek 2022ko hasieran izaten ahalko dute zuntza.

THD64-ri 5 galdera

Nola egiten da zuntzaren instalazioa ?

Zuntzaren instalatzeko THD 64k telefono kableen sarea baliatzen du. Zure karrikan telefono hariak airetik pasatzen badira: zutoin horiek erabiliko ditugu, lehenik karga atxikitzeko gaitasuna ikertuz, segur izateko zutoinek pizu gehigarria atxikitzen ahalko dutela. Gero ikerketa hori zutoinen jabeei aurkezten diegu (adibidez Orange edo Enedis) beren onespina eman dezaten. Izapide horiek denbora har dezakete eta ondorioz karrika batetik bestera gauzak ez dira berdin aitzinatuko. Zuen karrikan telefono hariak lurperatuak badira: zuntza telefono sareko edo herriaren hodi malguetatik pasatzen dugu.

Nola sartuko da zuntza ene etxera ?

Kasu gehienetan telefono harien bidetik joaten da. Aitzinetik hautatu duzun teknikariarekin eramanen dugu zuntza gelara eta hor zuntzaren sargia ezarriko dugu. Gero zure Internet hornitzailearen kutxa sargi horretara konektatu beharko da.

Etxebizitza kolektibo batean bizi banaiz, nola iritsiko da ene apartamentura ?

Etxe partzuergoak hitzarmen bat izenpetu behar du THD64rekin. Hitzarmena izenpetu-eta, THD64k eraikinaren eremu kolektiboetan banatuko du, eta gero apartamentu bakoitza horri lotuko zaio Internet hornitzailearekin kontratua egin-eta.

Zenbat balio du zuntzak?

Zuntza zure helbidera eraman badaiteke, THD64 sarean presente den Internet hornitzaile bati eskaera egin behar diozu. Internet hornitzaileak zerbitzurako sarbide gastuak eta abonamendua ordaintzea eskatuko dizue, hautatuko dituzuen zerbitzuen arabera. Hornitzaileek prezio berak dituzte Frantses estatu osoan: beren zerbitzuen prezioen ezagutzeko zoazte beren webgunera.

Arbonako etxebizitza guziek izanen dute zuntza?

Bai, eta zuntza lehen etxebizitzara heltzen denetik THD64k gehienez bi urte eta erdi ditugu herri osoa konektatzeko.



Bide eta karriken izendatzearen eta zenbakitzearen eguneratzea

Kasu hortan bazira, gogoan ibil zazu bi negurri horien eguneratzea. Izendatzearen fidagarritzea baitezpa beharrezkoa da zuntz optikoaren zabaltzeko eta bertzalde sokorriko zerbitzuek fermuki eskatzen dutena.

Etxeta etxe-multzoa

Arbonar berriei ongi etorria

Herriak Etxeta etxe-multzoaren proiektua abiatu du, zeren berez eraikigarria zen lur sail horretan arriskua baitzen bigarren etxebizitzak egitea edo aberatsentzako proiektu bat.



Honela, 10 familia gazte hemen kokatuko dira, gure herriaren jardueretan, elkarrekin eta eskolatan partehartzeko. Nahiz eta batzuek beren etxea eraikitzearen aurkako errekurtsoak kudeatu behar dituzten, familiagazteek aitzina segitzen dute eta gogotsu dira laster hemen bizitzen hasteko.

Sébastien eta Zoé-rentza Arbonan bizitzea begi bistakoa zen : « **hemen handitu naiz, eskola publikoan izana naiz eta Arbona FC futbol taldean. Gaur egun ene semea ere futbolean**

ari da eta gure bizi-proiektua zen hemen etxea egitea. Gure haurrak hemen handitzea nahi dugu » azaldu digu Sébastien-ek. Bikoteak bi haur ditu Oihan, 6 urte eta Nino, 4 urte, eta laster hirugarrena : « **Orain apartamentu txiki batean bizi gara eta hiru urte daramagu Arbonara itzultzeko eta bertako lagunekin egoteko gogoarekin »** zehaztu du Zoé-k.

Nitya ere Arbonan sortua da eta 4 urteko alaba du: « **Alaba Arbonako etxean handitzen eta loratzen ikusi nahi dut. Ez**

dut ulertzen zergatik auzokoek hainbeste prozedura egiten duten ene bizi-proiektua oztopatzeko. Diru egoera biziki zailetan ezartzen gaituzte, alta, ez dut uste deus gaizki egiten dugunik. Zergatik ez digute uzten gure bizi-proiektua hemen egiten? Haiek beren garaian berdin egin zuten ».

Dena den, gauzak aitzina doaz. Arbona herriak besoak zabalik hartuko ditu familia gazte horiek eta ongi etorria egiten die.



Igandeko azoka berria laster !

Arbonar anitzek espero zuten: pilota plazan eta Harismendi plazan azoka bat izanen da igande goizero. Arbonak kokapen geografiko bikaina eta erdigune atsegina ditu. Herriko etxeak kalitatezko mozkinak eta bertakoak eskainiko dituen merkatua nahi du. Helburua da elikadura eskaintza ahal bezain zabala ematea eta produktu batzuk bertan kontsumitu ahal izatea ere, asteroko azoka trukaketa leku atsegina bilaka dadin. Udaberrian hasiko da.

Herriaren webgune berria

Komunikazio batzordea herriaren web atari berri baten egiteko lanetan ari da. Udaberrirako espero dugu.

Orain arteko webgunea zaharkitua da. Herri Biltzarrak Arbonaren sareko presentzia instituzionala berritu nahi izan du, zerbitzu hobea eskaintzeko eta komunikazio modu berriei egokitzeko. Webgune berria atseginagoa, dinamikoagoa eta partehartzaileagoa izanen da. Teknologia berriak erabiltzen dituztenek urraspideak egiteko erraztasun handiagoa izanen dute. Laster sarean izanen da.



2020KO ERREGISTRO ZIBILA

SORTZEAK

ANDRO Camille	ENNEBICK Luka	JADOT Antoine
BLAMONT Enea	ERRAMOUSPE MARTINET Nathan	LAHITTE Gabi
BLANCHARD Axel	FORA Alice	LINGRAND Elaia
BREGERAS Marius	GAILLARD Leho	MERCÉ Diego
COTTE Timothée	GAMBIER Marin	TELLECHEA Hegoa
COUTHURES Enea	GIMENEZ-PARDO Mathéo	TÉNET MARTINEZ-LOPEZ Eliott

EZKONTZAK

Irène AYEZ	Servane LEVEL	Emilie MERCIER	Angélique RAYNARD
Walter FERLIN	Nicolas MARTIN	Antoine MOUTROUSTEGUY	Christophe MOLINARI

HERIOTZAK

ARTÉON Pierre	GOORMACHTIGH Francis	MARCHAND CHARPENTIER Angèle
BELASCAIN Jean	GOYA BEHASTEGUY Marie	MARQUÈZE-POUEY Marie
DARMENDRAIL Adrien	HOAREAU DAMOUR Lucette	MARTICORENA Pedro
DARRIEUSSECQ André	IBARRA Marie	ONDRIOSOLA Joseph
DESCHAMPS Emile	INCHAUSPÉ DELAHAYE Louise	ORLIANGE Claude
DIGUET ARAGON Marguerite	JOLY LÉPINE Marianne	PASCAUD DUGENEST Jacqueline
DIRIS Marie-José	LAFITTE Robert	PECKETT Ned
DORDEINS Gérard	LAFOURCADE Marie	PÉNIDE Georges
ESTAYNOU Xavier	LAUTARD Alain	POTTIER DE SOUTER Nicole
ETCHEVERRY Etienne	LAZARTIGUES LABARBE Jeanne	SANTAMARIA GUÉLAT Antoinette
ETCHEVERRY Patrick	LEFORT Daniel	SENAC THABUTEAU Madeleine
EZPONDA HOUSSET Maïte-Marcelle	LIBIER HARISPE Emilienne,	TRUQUÉS Michel
GARNIER AUNE Marcelle	LIQUET ELISSALDE Marie-Thérèse	VILALLONGA DEMON Maria
GONZALEZ Raphaël	LUBAS Louis	